


Martxan, Sagardun Partzuergoan gerente lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa

Kronika - Erredakzioa 2025eko apirilaren 5a

Entzun ▶



ASTIGARRAGA



Sagardoetxea kudeatzen du gerenteak.

Izena emateko epea maiatzaren 5era arte izango da zabalik.

Astigarragako Sagardun Partzuergoan gerente lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa martxan jarri da eta izenemateko epea maiatzaren 5era arte (barne) dago zabalik. Sagardun partzuergoak Sagardoetxea kudeatzen du, Astigarragako sagardoaren museoa. Gerente-lanpostua hutsik geratu da, Joxe Mari Alberrok jubilazioa hartu eta gero, eta hori betetzeko oposizio-lehiaketa abian jarri da. Argitaratu ziren deialdia eta oinarriak GAOn.

Partzuergoa Astigarragako Udalera atxikita dagoenez gerentearen lanpostua betetzeko prozesuaren ardura Udalaren gain geratu da.

Lanpostuak izango dituen funtzio eta ataza esanguratsuenak, hauek dira: Partzuergoko zuzendaritza-lanak egitea; proiektu berritzaileak sustatzea eta bultzatzea; partzuergoak burutzen dituen jarduerak koordinatu, antolatu eta gainbegiratzea; partzuergoko aurrekontuen osaketa eta jarraipena egitea; lan kontablea burutzea; dirulaguntzen tramitazioa egitea; partzuergoak kudeatzen dituen instalazioen eta bertako programen kudeaketa egitea; beste erakundeekin harremanak edukitzea eta hitzarmenak tramitatzeko; komunikazio idatziak gainbegiratzea; partzuergoko jarduerarekin zerikusia duten eskaerei erantzutea eta Astigarragako Udalarekin lankidetzan aritzea; txostenak eta ebazpen-proposamenak, estatistikak, memoriak, planak eta eskatzen zaizkion beste dokumentu batzuk egitea.

Hauek dira hautagaiak bete beharreko baldintzetako batzuk

16 urtetik gorakoa izatea; lizentziatura, diplomatura edo graduko unibertsitate-titulua izatea; ingeleseko edo frantseseko B2 maila izatea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera; Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko euskararen C2 maila edo baliokidea (IVAPen edo Osakidetzaren 4. hizkuntz-eskakizuna).

Eskaerak aurkeztea



Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute, Astigarragako Sagardoetxearen eta Udaleko webguneetan aurki daitekeen eredu normalizatuaren arabera.

Eskabideak Astigarragako Udalean aurkeztu behar dira, telematikoki edo aurrez-aurre erregistroan.

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun 



Ikusienak



[19ak giro ezinhobean ospatu zituen Kontrakantxak](#)

Libe Murua Masid abe
15, 00:00 [Hernani](#)



[Haziera eskolek izandako harrera ikusita, taldeak sortzea erabaki du Hernaniko Udalak](#)

Libe Murua Masid abe
14, 00:00 [Hernani](#)



[Egokitzapena k egiten ari dira «autobusen zirkulazioa errazteko»](#)

Libe Murua Masid abe
14, 00:00 [Hernani](#)



[Adin guztietako korrikalariak elkartuko dira gaur Karabelen](#)

Libe Murua Masid abe
14, 00:00 [Hernani](#)



[Ikastaroetan izen-ematea zabalik dago abenduaren 22ra arte](#)

Libe Murua Masid abe
14, 00:00 [Hernani](#)



[«Oso ohikoa ez den» programa aurkeztuko du larunbatean Hernaniko Musika Bandak](#)

Libe Murua Masid abe
15, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]@kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]@kronika.eus)



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA AIKOR AIURRI ALEA AMEZTI ANBOTO ANTXETA IRRATIA ATARIA AZPEITIA GUKA AZKOITIA GUKA
BARREN BEGITU BERRIKETAN DROGETEN ITTURRI ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GEURIA GOIENA GOIERRI TELEBISTA
GUAIXE GUKA GUKA TELEBISTA HIRUKA KRONIKA MAILOPE NOAUA OIZMENDI TELEBISTA ORIO GUKA PLAENTXIA
TXINTXARRI URIOLA ZARAUTZ GUKA ZUMAIA GUKA 28 KANALA

Matx Gurean Itap

Tokikom publizitatea

v15.8.4